# IRITZIAK

**Euskal iritzi publikoaren seihileko jarraipena**

*Seguimiento semestral de la opinión pública vasca*

# 12

**Uztaila – Abendua**

**2006**

**Julio – Diciembre**

*http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos*

**ATZERRIKO IMMIGRAZIOA EUSKADIN**
*LA INMIGRACIÓN EXTRANJERA EN EL PAÍS VASCO*

**BAKE PROZESUAREN EGOERARI BURUZKO IRITZIAK**
*OPINIONES RESPECTO A LA SITUACIÓN DEL PROCESO DE PAZ*

**BEGIKOTASUN POLITIKOAK**
*SIMPATÍAS POLÍTICAS*


EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA
Dirección de Estudios y Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica

# IRITZIAK - 12

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2006 Uztaila- Abendua

## LABURPENA / RESUMEN

### ATZERRIKO IMMIGRAZIOA EUSKADIN
### *INMIGRACIÓN EXTRANJERA EN EL PAÍS VASCO*

2006ko urriaren erdialdera, EAEko herritarren %36k hautematen zuten beste herrialde batzuetatik etorri eta Euskadin bizi ziren pertsonak gehiegi zirela, zertxobait gehiago ziren nahikoa zirela baina ez gehiegi uste zutenak (%42) eta bestalde, %8k gutxi zirela uste zuten. Euskadin Espainiako Estatu osoan baino gutxiago dira beste herrialdeetatik etorritako pertsonak gehiegi direla uste dutenak (%36 eta %59, hurrenez hurren). Ildo honetan, herritarren %20k uste dute Euskadiko biztanleriaren %10 baino gutxiago direla atzerritarrak, %18k uste dute %10 eta %19 artean direla, %11k uste dute %20 eta %29 artean direla, %7k uste dute %30 eta %39 artean direla, %4k uste dute %40 eta %49 artean direla eta beste %9k uste dute atzerritarrak biztanleen %50 edo gehiago direla; azkenik, kasik herenak (%31) ez daki edo ez du erantzun. Honela, herritarrek Euskadiko biztanleen %21, bataz bestean, atzerritarrak direla deritzote, Espainiako Estatu osoari dagokion ehunekoa ia berdina delarik (%20). Bestalde, herritarren gehiengoak azken urte hauetan EAEn atzerritarren kopurua asko edo nahikoa gehitu dela diote (%86k), %13k pixka bat edo gutxi gehitu dela eta ez da %1era iristen batere ez dela gehitu diotenen kopurua.

Euskal herritarrok etorkin atzerritarrak nola tratatzen ditugun galdetutakoan, aurrez eskainitako adjektibo zerrenda batetatik, batez ere mesfidantzaz (%37k), adeitasunez (%28k) eta axolagabetasunez (%16k) tratatzen ditugula diogu; eta askoz gutxiagok, euskal biztanleak balira bezala (%5ek), mespretxuz (%4k) edo agresibitatez (%1ek).

EAEko herritarren %90ek diote pertsona guztiek izan beharko luketela askatasuna edozein herrialdetan bizi eta lan egiteko, eurena ez bada ere. Iritzi hau pixka bat aldekoagoa zen 2001 urtean (orduan %96k zioten baietz). Baieztapen honekiko akordio maila ia bera da Espainiako Estatu osoari dagokionez ere (%89).

Euskadiko jendea ez dator bat etorkin atzerritarrek eduki ditzaketen eskubideez galdetu zaielarik, eskubide batzuen onarpena besteena baino zabalduago baitago. Hezkuntza eskubideari dagokionez, %60k uste dute etorkin atzerritar guztiek eduki beharko luketela, %34k soilik legezko etorkinek eta bakarrik %2 dira ez batzuek ez besteek ez luketela izan beharko uste dutenak. Osasun babeserako eskubideari dagokionez, %54k uste dute etorkin guztiek eduki beharko luketela, %37k soilik legezko etorkinek eta %3k ez batzuek ez besteek ez luketela eduki behar uste dute. Beste eskubide batzuen onarpen ehunekoak baxuagoak dira: %29k uste dute guztiek eduki beharko luketela gizarte laguntzak jasotzeko eskubidea (bekak, seme-alabengatiko laguntzak, oinarrizko errenta, langabezia dirulaguntza…), %53ren iritziz soilik legezko etorkinek eta %8ren ustez ez batzuek ez besteek; azkenik, %20k uste dute guztiek babes ofizialeko etxebizitzen zozketetan gainontzeko herritarren baldintza beretan parte hartzeko eskubidea izan beharko luketela, %54ren ustez soilik legezko etorkinek eta %17raino iristen dira horietako inork ez lukeela parte hartu behar zozketa horietan uste dutenak.

Bestalde, herritarren erdia baino gehiagok deritzo legeek etorkin atzerritarrei euren familiak ekartzeko eskubidea aitortu beharko lieketela (%65ek), baita boto eskubidea ere

*A mediados de octubre de 2006, un 36% de la ciudadanía de la CAPV percibía que las personas procedentes de otros países que vivían en el País Vasco eran demasiadas, eran algunos más quienes consideraban que eran bastantes pero no demasiadas (42%) mientras que un 8% pensaban que eran pocas. En el País Vasco son menos que en la totalidad del Estado español quienes consideran que las personas procedentes de otros países son demasiadas (36% frente al 59%). En este sentido, el 20% de la ciudadanía considera que menos del 10% de la población que reside en la CAPV es extranjera, un 18% considera que son entre el 10% y el 19%, un 11% que son entre el 20% y el 29%, un 7% considera que son entre el 30% y el 39%, el 4% que son entre el 40% y el 49%, otro 9% considera que los extranjeros son el 50% o más de la población y por último, casi un tercio no sabe o no contesta (31%). Así, la ciudadanía vasca considera de media que un 21% de la población residente en el País Vasco es extranjera, con porcentajes casi idénticos a los de la totalidad del Estado (20%). Por otro lado, la mayoría de la población percibe que en los últimos años ha aumentado mucho o bastante la presencia de extranjeros en la CAPV (86%), un 13% que ha aumentado algo o poco y no alcanzan el 1% quienes creen que no ha aumentado nada.*

*En cuanto a la actitud que mejor define como tratamos las y los vascos a los inmigrantes extranjeros, de un listado de adjetivos ofrecido, decimos, principalmente, que les tratamos con desconfianza (37%), con amabilidad (28%) y con indiferencia (16%); y mucho menos, igual que si fueran vascos (5%), con desprecio (4%) o con agresividad (1%).*

*El 90% de las y los ciudadanos de la CAPV afirman que toda persona debería tener libertad para vivir y trabajar en cualquier país, aunque no fuera el suyo. Esta opinión era algo más favorable el año 2001 (entonces el 96% respondían que sí). El nivel de acuerdo es casi idéntico en la totalidad del Estado español (89%).*

*La población vasca difiere en el apoyo mostrado a los derechos de los que puedan disfrutar los inmigrantes extranjeros; así, la aceptación de algunos derechos es mayor que la de otros. Con respecto al derecho a la educación, un 60% cree que todos los inmigrantes deberían tenerlo, un 34% sólo los inmigrantes legales y un 2% ni unos ni otros. Con respecto al derecho a la asistencia sanitaria, un 54% cree que todos los inmigrantes deberían tenerlo, un 37% sólo los inmigrantes legales y un 3% ninguno de ellos. El porcentaje de apoyo respecto a otros derechos es menor: un 29% cree que todos deberían tener derecho a ayudas sociales (becas, ayudas por hijos, renta básica, subsidio de desempleo…), según un 53% sólo los inmigrantes legales y para un 8% ni unos ni otros; por último, un 20% cree que todos deberían poder entrar en los sorteos de viviendas de protección oficial en las mismas condiciones que el resto de la población vasca, en opinión de un 54% sólo los inmigrantes legales y ascienden hasta un 17% quienes creen que ninguno de ellos debería tomar parte en esos sorteos.*

*Por otro lado, más de la mitad de la ciudadanía considera que la ley debería reconocer a los inmigrantes extranjeros el derecho a traer a sus familias (65%), así como el derecho al voto (64%).*

(%64k).

Oro har, immigrazioak Euskadirentzat abantaila gehiago ditu kalteak baino herritarren %40ren ustez, abantaila beste kalte ditu %17ren ustez eta kalte gehiago ditu abantailak baino laurdenarentzat (%26). Euskal ekonomiaz galdetuta, %46k diote immigrazioak abantaila gehiago dituela, %9k abantaila beste kalte dituela eta %27k kalte gehiago dituela abantailak baino. Euskadiko kulturarentzat immigrazioak dituen abantailak ekonomiarentzat dituenak baino pixka bat gutxiago direla esan dute herritarrek, %43k aipatu dituzte abantailak, abantaila beste kalte dituela %10ek eta kalte gehiago dituela abantailak baino %31k.

Atzerriko etorkinak herrialdean sartzeari buruz jarraitu beharreko politikari dagokionez, euskal biztanleen hiru laurdenek (%76k) diote sarrera soilik lan kontratua dutenei erraztu behar zaiela, %12k sarrera guztiei erraztu behar zaiela, %3k sarrera asko zaildu behar zaiela eta beste %3k sarrera zeharo debekatu behar litzaiekeela.

Azken hilabeteetan Kanariar Uharteetara iritsitako etorkin afrikarrei buruz galdetu zaienean, herritarren talde nagusiena hilabete batzuen ondoren lana aurkitzen badute beraien egoera legeztatu, eta ez badute aurkitzen euren jatorrizko herrietara bidaltzearen alde dago (%41). Hamarretik bat (%10) iristen diren guztien egoera legeztatzearen alde dago, %29 iristean laguntza humanitarioa eskaini eta ondoren euren jatorrizko herrialdeetara bidaltzearen aldekoak dira eta beste %6 zuzenean kanporatzearen alde daude.

Espainiako Gobernua gai honen inguruan egiten ari denaren balorazioa negatiboa da, %54k oso gaizki edo gaizki baloratu dute, %24k ongi edo oso ongi eta %22 ez dute baloratu. Balorazioa are okerragoa da Europar Batasunari dagokionez, %62k oso gaizki edo gaizki deritzote, %13k ongi edo oso ongi eta laurdenak ez du baloratu. Bestalde, %75ek oso ongi edo ongi baloratuko lukete Europar Batasun osoan immigrazioaren inguruko politika bateratua izatea.

Azkenik, euskal herritarren %62 foru aldundiek Kanariar Uharteetara iritsitako adin txikiko zenbait atzerritar jasotzearen alde daude. Eta gainera, %60k oso ongi edo ongi deritzote eurek bizi diren herri edo auzoan adin txikiko etorkin horientzako zentro bat irekitzeari eta aldiz, %28k gaizki edo oso gaizki deritzote.

*En términos generales, la inmigración tiene más ventajas que inconvenientes para el País Vasco según el 40% de la ciudadanía, tiene tantas ventajas como inconvenientes según el 17% y tiene más inconvenientes que ventajas según el 26%. Preguntados por la economía vasca, un 46% responde que la inmigración tiene más ventajas, un 9% que tiene tantas ventajas como inconvenientes y un 27% que tiene más inconvenientes que ventajas. Se considera que las ventajas son algo menores para la vida cultural del País Vasco, un 43% menciona que tiene ventajas, un 10% que tiene tantas ventajas como inconvenientes y un 31% que tiene más inconvenientes que ventajas.*

*En cuanto a la política a seguir respecto a la entrada en el país de los inmigrantes extranjeros, tres cuartos de la población vasca (76%) responden que lo más adecuado sería facilitar la entrada sólo a aquellos que tengan contratos de trabajo, el 12% facilitar la entrada de todos, el 3% hacer muy difícil la entrada y otro 3% prohibir por completo su entrada.*

*Preguntados por los inmigrantes africanos que han llegado a las Islas Canarias durante los últimos meses, el grupo mayoritario (41%) es partidario de regularizar su situación si en unos meses encuentran trabajo y si no lo encuentran devolverles a sus países de origen. Uno de cada diez (10%) es partidario de regularizar la situación de todos los que llegan, el 29% de darles ayuda humanitaria y devolverles a sus países de origen y, el 6% de expulsarles directamente.*

*La valoración de la actuación del Gobierno español en este tema es negativa, el 54% lo valoran mal o muy mal, el 24% bien o muy bien y el 22% no responde. Aún es más negativamente valorada la actuación de la Unión Europea: el 62% la ve mal o muy mal, el 13% bien o muy bien y un cuarto no contesta. Por otro lado, el 75% valoraría bien o muy bien que hubiese una política común sobre inmigración en la UE.*

*Por último, el 62% de la ciudadanía vasca estaría a favor de que las diputaciones vascas acogieran a parte de los menores extranjeros que han llegado a Canarias. Y además, el 60% valoraría bien o muy bien que se abriera un centro de acogida para esos menores en su pueblo o barrio frente al 28% que lo valoraría mal o muy mal.*

## BAKE PROZESUAREN EGOERARI BURUZKO IRITZIAK
## *OPINIONES RESPECTO A LA SITUACIÓN DEL PROCESO DE PAZ*

EAEko hamar herritarretatik zazpik (%71k) zerbait entzun, ikusi edo irakurri dute Europako Parlamentua Euskal Herriko bake prozesuaren alde onartutako ebazpenaz. Eta pasa den urriaren 25ean izandako Europako Parlamentuko bilera horrek interes handia edo nahikoa interes piztu ziela adierazi dute herritarren %44k.

Onartutako ebazpen horren seigarren puntuan, Euskal Herriko gatazka elkarrizketaren bidez konpontzearen alde agertu da Europako Parlamentua. EAEko herritar gehienak (%88) ados daude Europako Parlamentuak hartutako erabakiarekin. %5 bakarrik ez daude ados horrekin. Gainera, %71ren ustez Europako Legebiltzarrak elkarrizketari emandako babesak hurbilago jartzen du bakea. Izatez, bake prozesuaren oraingo unearen aurrean, herritarrek gehien sentitzen dutena optimismoa eta ilusioa dira, bakoitza %40k aipatua. Sentipen horien ondoren kezka dator (%31k aipaturik). Eta herritarren gehiengo zabal batek (%85) hurrengo urteetan Euskal Herrian bakea

*Siete de cada diez ciudadanos y ciudadanas de la CAPV (71%) han oído, visto o leído algo en relación a la aprobación por parte del Parlamento Europeo de una resolución a favor del proceso de paz en el País Vasco. Y un 44% de la ciudadanía ha expresado mucho o bastante interés en relación a dicha sesión del Parlamento Europeo celebrada el pasado 25 de octubre.*

*En el punto sexto de dicha resolución, el Parlamento Europeo se muestra a favor del diálogo como medio de solución del conflicto del País Vasco. La gran mayoría de las y los ciudadanos de la CAPV (88%) muestran su acuerdo con esta decisión del Parlamento Europeo. Únicamente un 5% dice estar en desacuerdo. Además, un 71% cree que este apoyo ofrecido por el Parlamento Europeo al diálogo nos acerca a la paz. De hecho, ante el momento actual del proceso de paz las dos sensaciones predominantes en la ciudadanía son el optimismo y la ilusión, mencionadas por un 40% en ambos casos. Tras*

finkatuko den itxaropena du.

EAEko herritarren heren batek (%34k) entzun du zer edo zer Ahotsak emakume taldeaz. Apur bat gutxiago dira talde horrek Euskal Herriko bake prozesuan laguntzeko sinatutako adierazpenari buruz zerbait entzun dutenak (%30). Bitxiki, gizonezkoek gehiago entzun dute bai taldeaz bai bere adierazpenaz, emakumezkoek baino. Dena dela, herritarren gehiengo zabalak (%94k) oso ondo edo ondo baloratu du ideologia ezberdinetako emakumeek bake prozesuaren inguruan akordio bat iritsi izana.

Bake prozesuan sortu daitezkeen elkarrizketa, foro edo mahaietan gizonen eta emakumeen partehartzeari buruzko jarrerak ia kopuru berdinetan banatu dira: %47ren ustez, horietan emakumeen zein gizonen partehartzea bermatu beharko litzateke, eta %49ren iritziz, ez litzateke kontuan hartu beharko parte hartzen dutenak gizonak edo emakumeak diren.

Euskal Herriko bake prozesuaren helburuari dagokionez, herritarren heren batek inguruk (%35ek) uste du helburu hori ETA desagertzea izan behar dela; alabaina, gehiago dira (%55) ETA desagertzeaz gain, bakeak aldaketa soziopolitikoak ekarri beharko lituzkeela deritzotenak. Dezente gehiago dira prozesuaren bukaeran euskal gizarteak erabakitzen duena, edozer dela ere, errespetatu beharko litzatekeela uste dutenak (%67), soilik erabakiak erreforma konstituzionalik ez badakar kontuan hartu beharko litzatekeela deritzotenak baino (%15).

*estas sensaciones se instala la preocupación (señalada por un 31%). Y una amplia mayoría (85%) de la ciudadanía tiene esperanza de que en los próximos años se consolide la paz en el País Vasco.*

*Un tercio de la ciudadanía de la CAPV (34%) ha oído hablar del colectivo de mujeres Ahotsak. Son unos pocos menos (30%) quienes han oído o visto algo sobre la declaración suscrita por este colectivo para contribuir al proceso de paz en el País Vasco. Curiosamente, los hombres han oído hablar más que las mujeres tanto del colectivo como de su declaración. En cualquier caso, la gran mayoría de la ciudadanía (94%) valora muy bien o bien que mujeres de diferentes ideologías políticas hayan conseguido ponerse de acuerdo sobre el proceso de paz.*

*En relación a la participación de hombres y mujeres en las conversaciones, foros o mesas de diálogo que puedan constituirse durante el proceso de paz, las posturas están divididas casi por igual: un 47% cree que debería asegurarse que en ellas participaran tanto hombres como mujeres, mientras que otro 49% señala que no se debería tener en cuenta si quienes participan son hombres o mujeres.*

*Con respecto al objetivo del proceso de paz en el País Vasco, alrededor de un tercio de la ciudadanía (35%) considera que dicho objetivo debe ser la desaparición de ETA; son más, sin embargo (55%), quienes creen que, además de la desaparición de ETA, la paz debería implicar cambios sociopolíticos. Son bastantes más (67%) quienes creen que al final del proceso se debería respetar lo que la sociedad vasca decida, sea lo que sea, que quienes creen que la decisión sólo debería tomarse en cuenta si no implica reformas constitucionales (15%).*

## BEGIKOTASUN POLITIKOAK
## *SIMPATÍAS POLÍTICAS*

Neurketa ezberdinetan ohikoa den moduan, EAJ da EAEko biztanleriarengan begikotasunik handiena sortarazten duen alderdia; aipamenen %20 jaso ditu eta. Gainontzeko alderdiak urruti daude, PSE-EE da hurrengoa, aipamenen %8 jaso baitu.

Aipatu behar da urrian, alderdi guztiek lehen seihilekoan baino aipamen gutxiago (edo haina) jaso dituztela. Izatez, alderdi bat ere ez dutela ondo ikusten diotenen aipamenak %20tik %25era gehitu dira.

Bestalde, erantzun ez dutenak gehiago dira emakumeen artean gizonezkoen artean baino. Aldiz, gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino gehiago dira alderdi bat ere begiko ez dutenak.

*Como viene siendo habitual en las diferentes mediciones, el PNV es el partido que genera mayor simpatía en la población de la CAPV; con un 20% de la menciones. El resto de partidos están muy lejos, el PSE-EE es el siguiente, con un 8% de menciones.*

*Se debe mencionar que en octubre, todos los partidos han recibido menos (o igual) número de menciones que en el primer semestre. De hecho, quienes señalan que ningún partido les cae bien ascienden del 20% al 25%.*

*Por otro lado, quienes no han respondido son más entre las mujeres que entre los hombres. En cambio, entre los hombres son más que entre las mujeres quienes no simpatizan con ningún partido.*

# IRITZIAK - 12

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre **2006** Uztaila – Abendua

## ATZERRIKO INMIGRAZIOA EUSKADIN
## *INMIGRACIÓN EXTRANJERA EN EL PAÍS VASCO*

**Zure ustez beste herrialde batzuetatik datozen eta Euskadin bizi diren pertsonak, …?**
*¿Le parece a Ud. que las personas procedentes de otros países que viven en Euskadi…?*

| | EAE 2006KO URRIA / *CAPV OCTUBRE 2006* | | | ESPAINIAKO ESTATUA 2005EKO AZAROA[1] / *ESTADO ESPAÑOL NOVIEMBRE 2005*[1] |
|---|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK / *TOTALES* | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | GUZTIZKOAK / *TOTALES* |
| **Gehiegi dira** / *Son demasiadas* | 36 | 34 | 37 | 59 |
| **Nahikoa dira baina ez gehiegi** / *Son bastantes pero no demasiadas* | 42 | 40 | 44 | 33 |
| **Gutxi dira** / *Son pocas* | 8 | 10 | 5 | 4 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 15 | 16 | 14 | 4 |
| | 100% | 100% | 100% | 100% |

**Zure ustez Euskadin bizi diren 100 pertsonetatik, zenbat jaio dira atzerrian?**
*De cada 100 personas que viven en Euskadi, ¿cuántas cree Ud. que han nacido en el extranjero?*

| | EAE 2006KO URRIA / *CAPV OCTUBRE 2006* | | | ESPAINIAKO ESTATUA 2005EKO AZAROA[1] / *ESTADO ESPAÑOL NOVIEMBRE 2005*[1] |
|---|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK / *TOTALES* | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | GUZTIZKOAK / *TOTALES* |
| **%10 baino gutxiago** / *Menos del 10%* | 20 | 29 | 12 | 16 |
| **%10 eta %19 bitartean** / *Entre el 10 y el 19%* | 18 | 23 | 13 | 21 |
| **%20 eta %29 bitartean** / *Entre el 20 y el 29%* | 11 | 11 | 10 | 13 |
| **%30 eta %39 bitartean** / *Entre el 30 y el 39%* | 7 | 7 | 8 | 8 |
| **%40 eta %49 bitartean** / *Entre el 40 y el 49%* | 4 | 3 | 5 | 4 |
| **%50 edo gehiago** / *50% o más* | 9 | 7 | 10 | 7 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 31 | 20 | 42 | 32 |
| | 100% | 100% | 100% | 100% |
| **Batezbestekoa** / *Media* | 21 | 18 | 25 | 20 |

**Zure ustez azken urte hauetan gure Autonomia Elkartean atzerritarrak gehitu al dira?**
*¿Considera Ud. que en los últimos años ha aumentado la presencia de extranjeros en nuestra Comunidad Autónoma?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK / *TOTALES* | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* |
| **Bai, asko edo nahikoa gehitu dira** / *Sí, ha aumentado mucho o bastante* | 86 | 85 | 87 |
| **Bai, pixka bat edo gutxi gehitu dira** / *Sí, ha aumentado algo o poco* | 13 | 14 | 12 |
| **Ez, ez dira batere gehitu** / *No, no ha aumentado nada* | 0 | 0 | 0 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 1 | 1 | 2 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Zure ustez, pertsona guztiek izan beharko lukete askatasuna edozein herrialdetan bizi eta lan egiteko, eurena ez bada ere?**
*¿Cree Ud. que, en general, toda persona debería tener libertad para vivir y trabajar en cualquier país, aunque no fuera el suyo?*

| | EAE 2006KO URRIA / *CAPV OCTUBRE 2006* | | | EAE 2001EKO MARTXOA / *CAPV MARZO 2001* | ESPAINIAKO ESTATUA 2004KO MAIATZA[2] / *ESTADO ESPAÑOL MAYO 2004*[2] |
|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK / *TOTALES* | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | GUZTIZKOAK / *TOTALES* | GUZTIZKOAK / *TOTALES* |
| **Bai** / *Sí* | 90 | 90 | 90 | 96 | 89 |
| **Ez** / *No* | 5 | 6 | 5 | 2 | 8 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 4 | 3 | 6 | 2 | 3 |
| | 100% | 100% | 100% | 100% | 100% |

1 CIS, 2625. BAROMETROA, 2005EKO AZAROA / *CIS, BARÓMETRO Nº 2625, NOVIEMBRE 2005.*
2 CIS, 2565. BAROMETROA, 2004KO MAIATZA / *CIS, BARÓMETRO Nº 2565, MAYO 2004.*

# IRITZIAK - 12

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre **2006** Uztaila – Abendua

**Irakurriko dizkizudan jarreretatik zeinek definitzen du hobekien euskal biztanleok, oro har, nola tratatzen ditugun immigrante atzerritarrak?**

*¿Cuál de las actitudes que le voy a leer define mejor la manera en que los vascos tratamos a los inmigrantes extranjeros?*

2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006*

| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
|---|---|---|---|
| **Mesfidantzaz** / *Con desconfianza* | 37 | 33 | 41 |
| **Adeitasunez, atseginak izanez** / *Con amabilidad* | 28 | 29 | 28 |
| **Axolagabetasunez** / *Con indiferencia* | 16 | 20 | 11 |
| **Euskal biztanleak izango balira bezala** / *Igual que si fueran vascos* | 5 | 6 | 4 |
| **Mespretxuz** / *Con desprecio* | 4 | 4 | 4 |
| **Agresibitatez** / *Con agresividad* | 1 | 1 | 1 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 9 | 7 | 11 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Dakizunez, Euskadiko herritarrok hainbat eskubide ditugu: osasun babesa, hezkuntza, hainbat gizarte laguntza, etxebizitzarako laguntzak, eta abar. Zure ustez gainontzeko euskal herritarrek bezala osasun babeserako eskubidea izan beharko lukete immigrante atzerritar guztiek, legezkoek bakarrik edo horietako inork ere ez?**

*Como Ud. sabe, los ciudadanos del País Vasco tenemos derecho a asistencia sanitaria, a educación, a diversas ayudas sociales, a la vivienda, etc. ¿Considera Ud. que, como el resto de la población vasca, deberían tener derecho a asistencia sanitaria todos los inmigrantes extranjeros, sólo los legales o ninguno?*

2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006*

| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
|---|---|---|---|
| **Bai, guztiek** / *Sí, todos* | 54 | 52 | 57 |
| **Legezkoek bakarrik** / *Sólo los legales* | 37 | 41 | 33 |
| **Horietako inork ere ez** / *Ninguno* | 3 | 3 | 3 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 6 | 5 | 7 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Eta gainontzeko euskal herritarrek bezala hezkuntzarako eskubidea izan beharko lukete immigrante atzerritar guztiek, legezkoek bakarrik edo horietako inork ere ez?**

*¿Y deberían tener derecho a la educación, como el resto de la población vasca, todos los inmigrantes extranjeros, sólo los legales o ninguno?*

2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006*

| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
|---|---|---|---|
| **Bai, guztiek** / *Sí, todos* | 60 | 58 | 63 |
| **Legezkoek bakarrik** / *Sólo los legales* | 34 | 37 | 30 |
| **Horietako inork ere ez** / *Ninguno* | 2 | 1 | 2 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 4 | 4 | 5 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Eta gainontzeko euskal herritarrek bezala gizarte laguntzak (bekak, seme-alabengatiko laguntzak, oinarrizko errenta, langabezia, etab) jasotzeko eskubidea izan beharko lukete immigrante atzerritar guztiek, legezkoek bakarrik edo horietako inork ere ez?**

*¿Y deberían tener derecho a ayudas sociales como becas, ayudas por hijos, Renta Básica, paro, etc, como el resto de la población vasca, todos los inmigrantes extranjeros, sólo los legales o ninguno?*

2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006*

| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
|---|---|---|---|
| **Bai, guztiek** / *Sí, todos* | 29 | 29 | 29 |
| **Legezkoek bakarrik** / *Sólo los legales* | 53 | 55 | 51 |
| **Horietako inork ere ez** / *Ninguno* | 8 | 7 | 9 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 10 | 9 | 11 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Gizarte laguntzak jasotzeko eskubidea /**
***Derecho a ayudas sociales***




**Eta gainontzeko euskal herritarren baldintza beretan babes ofizialeko etxebizitzen zozketetan sartzeko aukera izan beharko lukete immigrante atzerritar guztiek, legezkoek bakarrik edo inork ere ez?**

*¿Y deberían poder entrar en los sorteos de viviendas de protección oficial, en las mismas condiciones que el resto de la población vasca, todos los inmigrantes extranjeros, sólo los legales o ninguno?*

2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006*

| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
|---|---|---|---|
| **Bai, guztiek** / *Sí, todos* | 20 | 20 | 21 |
| **Legezkoek bakarrik** / *Sólo los legales* | 54 | 56 | 52 |
| **Horietako inork ez** / *Ninguno* | 17 | 16 | 17 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 9 | 8 | 11 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Bestalde, zuk uste duzu legeek atzerriko immigranteei euren familiak ekartzeko eskubidea aitortu beharko lieketela?**

*Por otro lado, ¿considera Ud. que la ley debería reconocer a los inmigrantes extranjeros el derecho a traer a sus familias?*

2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006*

| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
|---|---|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 65 | 66 | 65 |
| **Ez** / *No* | 19 | 20 | 17 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 16 | 15 | 17 |
| | 100% | 100% | 100% |

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2006 Uztaila – Abendua

**Uste duzu atzerriko immigranteek boto eskubidea izan behar luketela?**
*¿Considera Ud. que los inmigrantes extranjeros deberían tener derecho al voto?*

2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006*

| | GUZTIZKOAK / *TOTALES* | GIZON. / *VARÓN* | EMAK. / *MUJER* |
|---|---|---|---|
| Bai / *Sí* | 64 | 61 | 68 |
| Ez / *No* | 24 | 30 | 18 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 12 | 9 | 14 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Zure ustez, oro har, immigrazioak Euskadirentzat abantailak edo kalteak ditu gehiago?**
*¿Cree Ud., que en términos generales, para el País Vasco la inmigración tiene más ventajas o más inconvenientes?*

2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006*

| | GUZTIZKOAK / *TOTALES* | GIZON. / *VARÓN* | EMAK. / *MUJER* |
|---|---|---|---|
| Abantaila gehiago ditu / *Tiene más ventajas* | 40 | 48 | 32 |
| Abantaila beste kalte ditu [1] / *Tiene tantas ventajas como inconvenientes* [1] | 17 | 13 | 22 |
| Kalte gehiago ditu / *Tiene más inconvenientes* | 26 | 27 | 26 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 16 | 13 | 19 |
| | 100% | 100% | 100% |




**Euskadiko ekonomian zentratuz, immigranteak iristeak abantailak edo kalteak ditu gehiago euskal ekonomiarentzat?**
*Centrándonos en la economía del País Vasco, ¿diría Ud. que la llegada de inmigrantes tiene más ventajas o más inconvenientes para la economía vasca?*

2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006*

| | GUZTIZKOAK / *TOTALES* | GIZON. / *VARÓN* | EMAK. / *MUJER* |
|---|---|---|---|
| Abantaila gehiago ditu / *Tiene más ventajas* | 46 | 57 | 36 |
| Abantaila beste kalte ditu [1] / *Tiene tantas ventajas como inconvenientes* [1] | 9 | 9 | 9 |
| Kalte gehiago ditu / *Tiene más inconvenientes* | 27 | 20 | 33 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 18 | 13 | 22 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Kulturari dagokionez, immigranteak iristeak abantailak edo kalteak ditu gehiago Euskadiko kulturarentzat?**
*En cuanto a la cultura, la llegada de inmigrantes, ¿cree usted que tiene más ventajas o más inconvenientes para la vida cultural del País Vasco?*

2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006*

| | GUZTIZKOAK / *TOTALES* | GIZON. / *VARÓN* | EMAK. / *MUJER* |
|---|---|---|---|
| Abantaila gehiago ditu / *Tiene más ventajas* | 43 | 47 | 39 |
| Abantaila beste kalte ditu [1] / *Tiene tantas ventajas como inconvenientes* [1] | 10 | 9 | 10 |
| Kalte gehiago ditu / *Tiene más inconvenientes* | 31 | 31 | 32 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 16 | 13 | 19 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Oro har, langile immigranteei buruz zein politika uste duzu izango litzatekeela egokiena?**
*En general, ¿qué política cree Ud. que sería la más adecuada con respecto a los trabajadores inmigrantes?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | | 2001EKO MARTXOA / *MARZO 2001* |
|---|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK / *TOTALES* | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | GUZTIZKOAK / *TOTALES* |
| Langile immigrante guztiei erraztu sarrera / *Facilitar la entrada de todos los trabajadores inmigrantes* | 12 | 14 | 10 | 32 |
| Soilik lan kontratua dutenei erraztu sarrera / *Facilitar la entrada sólo a aquellos que tengan contrato de trabajo* | 76 | 77 | 75 | 60 |
| Langile immigranteen sarrera asko zaildu / *Hacer muy difícil la entrada de trabajadores inmigrantes* | 3 | 3 | 4 | 2 |
| Langile immigranteen sarrera zeharo debekatu / *Prohibir por completo la entrada a trabajadores inmigrantes* | 3 | 3 | 3 | 1 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 6 | 4 | 8 | 5 |
| | 100% | 100% | 100% | 100% |

1 ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.*

# IRITZIAK - 12

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre **2006** Uztaila – Abendua

**Zuk dakizun bezala, azken hilabeteetan Afrikako immigrante asko iritsi dira Kanarietako kostaldera. Zer uste duzu egin behar dutela agintariek immigrante horiekin?**

*Como Ud. sabe, durante los últimos meses ha llegado un gran número de inmigrantes africanos a las costas canarias. ¿Qué cree Ud. que deben hacer las autoridades con estos inmigrantes?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* |
| **Iristen diren guztien egoera legeztatu** / *Regularizar la situación de todos los que llegan* | 10 | 12 | 8 |
| **Beraien egoera legeztatu hilabete batzuen ondoren lana aurkitzen badute, eta ez badute lanik aurkitzen euren jatorrizko herrialdeetara bidali** / *Regularizar su situación si en unos meses encuentran trabajo, y si no lo encuentran devolverles a su país de origen* | 41 | 40 | 43 |
| **Iristean laguntza humanitarioa eskaini eta euren jatorrizko herrialdeetara bidali** / *Darles ayuda humanitaria al llegar y devolverles a su país de origen* | 29 | 28 | 30 |
| **Zuzenean kanporatu** / *Expulsarles directamente* | 6 | 7 | 5 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 13 | 12 | 15 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Nola baloratzen duzu Kanarietara iristen diren immigranteen gaian Espainiako Gobernua egiten ari dena?**

*¿Cómo valora Ud. la actuación del Gobierno español en el tema de los inmigrantes que llegan a Canarias?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
| **Oso ongi** / *Muy bien* | 2 | 1 | 3 |
| **Ongi** / *Bien* | 22 | 21 | 23 |
| **Gaizki** / *Mal* | 36 | 36 | 35 |
| **Oso gaizki** / *Muy mal* | 18 | 23 | 13 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 22 | 19 | 25 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Eta nola baloratzen duzu Europar Batasuna egiten ari dena?**

*¿Y cómo valora la actuación de la Unión Europea?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
| **Oso ongi** / *Muy bien* | 1 | 1 | 1 |
| **Ongi** / *Bien* | 12 | 12 | 13 |
| **Gaizki** / *Mal* | 42 | 42 | 42 |
| **Oso gaizki** / *Muy mal* | 20 | 25 | 14 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 25 | 21 | 30 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Zuk nola baloratuko zenuke Europar Batasun osoan immigrazioaren inguruko politika bateratua izatea?**

*¿Cómo valoraría Ud. que existiese en toda la Unión Europea una política común sobre inmigración?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
| **Oso ongi** / *Muy bien* | 22 | 23 | 22 |
| **Ongi** / *Bien* | 53 | 55 | 50 |
| **Gaizki** / *Mal* | 8 | 9 | 7 |
| **Oso gaizki** / *Muy mal* | 1 | 1 | 1 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 16 | 12 | 20 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Kanarietara iritsitako immigranteen artean 500 baino gehiago adin txikikoak (18 urtetik beherakoak) dira. Gobernuak penintsulara ekarri eta autonomia elkarte desberdinetako adin txikikoen zentroetan jaso nahi ditu. Zu zeu euskal diputazioek adin txikiko atzerritar horietako batzuk jasotzearen alde ala aurka zaude?**

*Entre los inmigrantes que han llegado a Canarias hay más de 500 menores de edad. El Gobierno quiere trasladarlos a la península y acogerlos en los centros de menores de las diferentes comunidades autónomas. ¿Estaría Ud. a favor o en contra de que las Diputaciones vascas acogieran a parte de esos menores extranjeros?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
| **Alde** / *A favor* | 62 | 63 | 61 |
| **Aurka** / *En contra* | 28 | 28 | 28 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 10 | 9 | 11 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Eta nola baloratuko zenuke zu bizi zaren herri edo auzoan adin txikiko atzerritar horiek jasotzeko zentro bat irekitzea?** [1]

*¿Y cómo valoraría que se abriera un centro de acogida para esos menores extranjeros en el pueblo o barrio donde Ud. vive?* [1]

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
| **Oso ongi** / *Muy bien* | 9 | 10 | 7 |
| **Ongi** / *Bien* | 51 | 50 | 52 |
| **Gaizki** / *Mal* | 18 | 19 | 17 |
| **Oso gaizki** / *Muy mal* | 10 | 10 | 9 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 12 | 11 | 14 |
| | 100% | 100% | 100% |

1 HERRI HORRETAN BADAGOELA ZIOTENEI, ZENTRO HORI NOLA BALORATZEN ZUTEN GALDETU ZITZAIEN / *A LOS QUE RESPONDÍAN QUE EN ESA LOCALIDAD YA EXISTE, SE LES PREGUNTÓ COMO VALORABAN ESE CENTRO*.

# BAKE PROZESUAREN EGOERARI BURUZKO IRITZIAK
# *OPINIONES RESPECTO A LA SITUACIÓN DEL PROCESO DE PAZ*

**Pasa den urriak 25ean Europako Parlamentuan Euskal Herriko bake prozesuari buruzko ebazpena onartu zen. Gai horri buruz zerbait entzun, irakurri edo ikusi al duzu?**

*El pasado 25 de octubre en el Parlamento Europeo se aprobó una resolución a favor del proceso de paz en el País Vasco. ¿Ha oído, leído o visto Ud. algo sobre este tema?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
| **Bai** / *Sí* | 71 | 79 | 62 |
| **Ez** / *No* | 29 | 21 | 37 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Zenbateko interesa sortu dizu euskal bake prozesuari buruzko Europako Parlamentuko bilera horrek?** [1]

*¿Qué interés ha tenido para Ud. esa sesión del Parlamento Europeo sobre el proceso de paz vasco?* [1]

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
| **Interes handia** / *Mucho interés* | 22 | 24 | 19 |
| **Interes nahikoa** / *Bastante interés* | 22 | 23 | 22 |
| **Interes apur bat** / *Algún interés* | 18 | 21 | 15 |
| **Batere interesik ez** / *Ningún interés* | 6 | 9 | 4 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 2 | 2 | 2 |
| **Ez dute ezer entzun horretaz** / *No han oído nada sobre eso* | 29 | 21 | 38 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Euskal Herriko gatazka elkarrizketaren bidez konpontzearen alde agertu da Europako Parlamentua onartutako ebazpenaren seigarren puntuan, zu erabaki horrekin ados zaude ala ez zaude ados?**

*El Parlamento Europeo en el punto 6. de la resolución aprobada se ha mostrado a favor de solucionar el conflicto del País Vasco por medio del diálogo, ¿Está Ud. de acuerdo o en desacuerdo con esa decisión?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
| **Ados zaude** / *De acuerdo* | 88 | 88 | 88 |
| **Ez zaude ados** / *En desacuerdo* | 5 | 6 | 3 |
| **Ez ados ez desados** [2] / *Ni de acuerdo ni en desacuerdo* [2] | 4 | 4 | 5 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 3 | 2 | 4 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Zure ustez bakea urrutiago ala hurbilago jartzen du Europako Parlamentuak elkarrizketari emandako babes horrek?**

*¿En su opinión el apoyo ofrecido por el Parlamento Europeo al diálogo nos acerca o nos aleja de la paz?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
| **Hurbilago** / *Nos acerca* | 71 | 71 | 71 |
| **Urrutiago** / *Nos aleja* | 5 | 6 | 5 |
| **Ez hurbilago ez urrutiago** [2] / *Ni nos acerca ni nos aleja* [2] | 11 | 13 | 8 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 13 | 10 | 16 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Bake prozesuaren une honetako egoeran pentsatuz, ondoko sentipenetatik zeintzuk dira zure sentimenduak hobekien adierazten dituzten biak?** [3]

*En relación al proceso de paz y pensando en el momento actual, ¿qué dos sensaciones de las siguientes, reflejarían mejor su estado de ánimo?* [3]

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | | 2006KO APIRILA / *ABRIL 2006* |
|---|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | GUZTIZKOAK *TOTALES* |
| **Optimismoa** / *Optimismo* | 40 | 43 | 37 | 39 |
| **Ilusioa** / *Ilusión* | 40 | 40 | 39 | 46 |
| **Ardura, kezka** / *Preocupación* | 31 | 31 | 31 | 15 |
| **Nahastea** / *Confusión* | 13 | 9 | 17 | 12 |
| **Denbora ez aprobetxatzearen sentsazioa** / *Sensación de desaprovechar el tiempo* | 12 | 11 | 12 | 6 |
| **Desilusioa** / *Desilusión* | 10 | 11 | 8 | 5 |
| **Beldurra** / *Miedo* | 5 | 5 | 5 | 5 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 7 | 5 | 8 | 12 |

1 GALDERA HAU EUROPAKO PARLAMENTUAREN EBAZPENARI BURUZ ZERBAIT ENTZUN, IRAKURRI EDO IKUSI DUTELA ERANTZUN ZUTENEI BAKARRIK EGIN ZITZAIEN / *ESTA PREGUNTA DÓLO SE HIZO A QUIENES RESPONDIERON QUE HABÍAN OÍDO, LEÍDO O VISTO ALGO SOBRE LA RESOLUCIÓN DEL PARLAMENTO EUROPEO.*

2 ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.*

3 GALDERA HONI ERANTZUTEKO INKESTATUEI SENTSAZIO ZERRENDA BAT ESKAINI ZITZAIEN GEHIENEZ BI AUKERATZEKO , BERAZ, GUZTIZKOA 100 BAINO GEHIAGO DA./ *PARA REALIZAR ESTA PREGUNTA, A LAS Y LOS ENCUESTADOS SE LES PRESENTÓ UN LISTADO DE SENSACIONES PARA QUE SEÑALARAN DOS COMO MÁXIMO, POR LO TANTO, LA SUMA TOTAL ES SUPERIOR A 100.*

# IRITZIAK - 12

**Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea**
**Julio – Diciembre 2006 Uztaila – Abendua**

**Edozelan, hurrengo urteetan Euskal Herrian bakea finkatzeko itxaropenik ba al duzu?**
*En cualquier caso, ¿tiene Ud. esperanza de que en los próximos años se consolide la paz en el País Vasco?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | | 2006KO APIRILA / *ABRIL 2006* |
|---|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | GUZTIZKOAK *TOTALES* |
| **Bai** / *Sí* | 85 | 87 | 82 | 90 |
| **Ez** / *No* | 12 | 9 | 13 | 5 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 4 | 4 | 3 | 5 |
| | 100% | 100% | 100% | 100% |

**Bestalde, entzun al duzu Ahotsak emakume taldeari buruz zerbait?**
*Por otro lado, ¿ha oído Ud. hablar del colectivo de mujeres Ahotsak?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
| **Bai** / *Sí* | 34 | 43 | 25 |
| **Ez** / *No* | 66 | 57 | 75 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 0 | 0 | 1 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Ahotsak taldea Euskal Herri osoko ideologia, alderdi politiko eta sindikatu desberdinetako hainbat emakumek osatutako taldea da. Talde honek bake prozesuan laguntzeko adierazpen bat sinatu zuen. Entzun, irakurri edo ikusi al duzu adierazpen horri buruzko zerbait?**
*Ahotsak es un colectivo de mujeres de diferentes ideologías, partidos políticos y sindicatos de todo el País Vasco. Este colectivo suscribió una declaración para contribuir al proceso de paz vasco. ¿Ha oído, leído o visto Ud. algo sobre esta declaración?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
| **Bai** / *Sí* | 30 | 37 | 23 |
| **Ez** / *No* | 70 | 63 | 77 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 0 | 0 | 0 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Edozelan, nola baloratzen duzu ideologia politiko desberdinetako emakumeek bake prozesuaren inguruan akordio batera iritsi izana: oso ondo, ondo, txarto edo oso txarto?**
*En cualquier caso, ¿cómo valora Ud. que mujeres de diferentes ideologías políticas hayan conseguido ponerse de acuerdo sobre el proceso de paz: muy bien, bien, mal o muy mal?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZON. *VARÓN* | EMAK. *MUJER* |
| **Oso ondo** / *Muy bien* | 56 | 52 | 61 |
| **Ondo** / *Bien* | 38 | 40 | 37 |
| **Ez ondo ez txarto** [1] / *Ni bien ni mal* [1] | 2 | 3 | 1 |
| **Txarto** / *Mal* | 1 | 2 | 0 |
| **Oso txarto** / *Muy mal* | 1 | 1 | 0 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 2 | 2 | 2 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Ahotsak ekimenaren balorazioa /**
***Valoración de la iniciativa Ahotsak***




**Prozesuan zehar sortu daitezkeen elkarrizketa, foro edo mahaietan parte hartzeari buruz, ondoko zein esaldirekin zaude adosago?**
*Respecto a la participación en las conversaciones, foros o en las mesas de diálogo que se puedan formar durante el proceso, ¿con cuál de las siguientes frases está Ud. más de acuerdo?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK *TOTALES* | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* |
| **Nahiz emakumeen zein gizonen parte hartzea bermatu beharko litzateke** / *Debería asegurarse que participen tanto hombres como mujeres* | 47 | 45 | 49 |
| **Ez litzateke kontuan hartu behar parte hartzen dutenak gizonak edo emakumeak diren** / *No se debería tener en cuenta si quienes participan son hombres o mujeres* | 49 | 51 | 46 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 4 | 4 | 5 |
| | 100% | 100% | 100% |

1 ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.*

**Jarraian Ahotsak-en adierazpen horretan aipatutako hainbat alderi buruz galdetuko dizut. Zure ustez, zein izan behar da Euskal Herriko bake prozesuaren helburua?**
*A continuación le voy a preguntar en torno a algunos aspectos mencionados en esa declaración de Ahotsak. En su opinión, ¿cuál debe ser el objetivo del proceso de paz vasco?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK / *TOTALES* | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* |
| ETA desagertzea / *La desaparición de ETA* | 35 | 36 | 35 |
| ETA desagertzeaz gain, bakeak aldaketa sozio-politikoak ekarri beharko lituzke / *Además de la desaparición de ETA, la paz debería implicar cambios socio-políticos* | 55 | 56 | 54 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 10 | 8 | 11 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Zure ustez, prozesuaren bukaeran, euskal gizarteak erabakitzen duena errespetatu beharko litzateke, dena dela, edo soilik erreforma konstituzionalik ez badakar?**
*Al final del proceso, ¿cree Ud. que se debería respetar lo que la sociedad vasca decida, sea lo que sea, o sólo si no implica reformas constitucionales?*

| | 2006KO URRIA / *OCTUBRE 2006* | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIZKOAK / *TOTALES* | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* |
| Euskal gizarteak erabakitzen duena errespetatuko beharko litzateke, dena dela / *Se debería respetar lo que la sociedad vasca decida, sea lo que sea* | 67 | 74 | 59 |
| Soilik erreforma konstituzionalik ez badakar / *Sólo si no implica reformas constitucionales* | 15 | 13 | 17 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 18 | 13 | 24 |
| | 100% | 100% | 100% |



# IRITZIAK - 12

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre **2006** Uztaila – Abendua

## BEGIKOTASUN POLITIKOAK
## *SIMPATÍAS POLÍTICAS*

**Esango didazu Eusko Legebiltzarrean dauden partiduetatik zuk zein duzun gustukoen?**
*¿Me podría decir qué partido político con representación en el Parlamento Vasco le cae a Ud. mejor?*

| | 2001 *2001** | 2002 *2002** | 2003 *2003** | 2004 *2004** | 2005 *2005** | 2006 Urt-Eka *Ene-Jun 2006** | 2006ko Uzt-Aben / *Jul-Dic 2006**: Guztizkoak *Totales* | Gizon. *Varón* | Emak. *Mujer* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EAJ/PNV** | 27 | 22 | 20 | 20 | 23 | 24 | 20 | 22 | 19 |
| **PSE-EE** | 7 | 7 | 4 | 13 | 9 | 8 | 8 | 8 | 9 |
| **Ezker Batua (IU)** | 6 | 4 | 2 | 5 | 5 | 4 | 4 | 4 | 3 |
| **EA** | 4 | 4 | 3 | 3 | 4 | 4 | 3 | 3 | 3 |
| **PP** | 4 | 5 | 5 | 4 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 |
| **Aralar** | -- | -- | 5 | 2 | 2 | 1 | 2 | 3 | 1 |
| **EHAK** / PCTV ** | 5 | 4 | 4 | 5 | 3 | 4 | 2 | 4 | 1 |
| **Denak ikusten ditut ondo**/ *Todos igual de bien* | 3 | 2 | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 1 |
| **Bat ere ez dut ondo ikusten** / *Ninguno me cae bien* | 21 | 25 | 25 | 22 | 22 | 20 | 25 | 27 | 22 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 24 | 27 | 32 | 25 | 27 | 30 | 31 | 24 | 38 |
| | 100% | 100% | 100% | 100% | 100% | 100% | 100% | 100% | 100% |

*** Datu horiek garai horretan eginiko ikerketen emaitzetatik ateratako batezbestekoak dira: batezbestekoak egitean lehenengo dezimalaren borobiltzea egin da eta horregatik batuketa %100 baino altuagoa suerta daiteke** / *Estos datos son medias obtenidas entre los resultados de los estudios realizados en este período de tiempo; debido al redondeo del primer decimal efectuado al realizar las medias, la suma total puede ser diferente a 100%.*

**** Aurreko urteetan EH, Batasuna edo, zehaztu barik, ezker abertzaleko beste talde batzuei zegozkien erantzunak batzen ziren kategoria honetan** / *En años anteriores en esta categoría se recogían las respuestas correspondientes a EH, Batasuna u otros grupos de la izquierda abertzale sin especificar.*



Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Julio – Diciembre 2006 Uztaila – Abendua

# ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA

## LEHENENGO LAGINALDIA (urriak 16-18) / PRIMERA OLEADA (16-18 de octubre)

**EAEko 18 urte eta gehiagoko populazioari telefonoz egindako 1000 elkarrizketa (300 Araban, 400 Bizkaian eta 300 Gipuzkoan), 20na inkestako 50 bide aleatorioren bitartez, eta ondoren sexu, adin eta lan egoeraren araberako kuotak erabiliz elkarrizketatuak aukeratuz. Laginaren balizko errakuntza teorikoa ±3,2koa litzateke, %95,5eko konfiantza mailarentzat eta p=q=0,5 delarik. Datu bilketa 2006ko urriaren 16tik 18ra bitartean egin zen.**

**Espainiako Estatuko datuekin konparazioa egiteko, Centro de Investigaciones Sociologicas-ek 2004 eta 2005ean egindako etxez-etxeko inkestetatik hartu dira datuak; zehatzago, 2565 eta 2625 zenbakidun Barometroak.**

*1000 entrevistas (300 en Araba, 400 en Bizkaia y 300 en Gipuzkoa) realizadas por teléfono a la población de 18 o más años de la CAPV a partir de 50 rutas aleatorias de 20 encuestas cada una, con selección posterior según cuotas de sexo, edad y situación laboral. El error muestral teórico hipotético sería de ± 3,2 para un nivel de confianza del 95,5% y siendo p=q=0,5. La recogida de la información se realizó del 16 al 18 de octubre de 2006.*

*Para la comparación con los datos del Estado Español se parte de varias encuestas domiciliarias realizadas por el Centro de Investigaciones Sociológicas en 2004 y 2005; Barómetros nº 2565 y 2625.*

## BIGARREN LAGINALDIA (urriak 30-31) / SEGUNDA OLEADA (30-31 de octubre)

**EAEko 18 urte eta gehiagoko populazioari telefonoz egindako 600 elkarrizketa (160 Araban, 240 Bizkaian eta 200 Gipuzkoan), 20na inkestako 30 bide aleatorioren bitartez, eta ondoren sexu, adin eta lan egoeraren araberako kuotak erabiliz elkarrizketatuak aukeratuz. Laginaren balizko errakuntza teorikoa ±4,1koa litzateke, %95,5eko konfiantza mailarentzat eta p=q=0,5 delarik. Datu bilketa 2006ko urriaren 30 eta 31n egin zen.**

**2006ko apirileko datuekin konparatu ahal izateko, telefonozko inkestetatik abiaturik egindako "ETAren ekintza armatuen etenaldi iraunkorra eta bake prozesua" txostenaz baliatu gara.**

*600 entrevistas (160 en Araba, 240 en Bizkaia y 200 en Gipuzkoa) realizadas por teléfono a la población de 18 o más años de la CAPV a partir de 30 rutas aleatorias de 20 encuestas cada una, con selección posterior según cuotas de sexo, edad y situación laboral. El error muestral teórico hipotético sería de ± 4,10 para un nivel de confianza del 95,5% y siendo p=q=0,5. La recogida de la información se realizó del 30 al 31 de octubre de 2006.*

*Para la comparación con datos de abril de 2006 se parte de un estudio realizado a partir de encuestas telefónicas titulado "Alto al fuego permanente de ETA y proceso de paz".*

| **Landa lana** / *Trabajo de campo* |
|---|
| *Gizaker, S.L.*, Industrialdea de Gojain, Ed. C-2., 01170 Legutiano (Araba) |

# IRITZIAK